

SOFTWARE LIBRE Y FUENTES ABIERTAS

KODEA 2017-35-40-1

INFORMAZIO OROKORRA

IRAUPENA 10 ordu **IKASTARORA SARBIDEA** <http://autoprestakuntza.euskadi.eus>

HARTZAILEAK Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten enplegatu publikoak.

BALDINTZAK
-Helbide elektroniko bakarra ikasle bakoitzeko
-Administrazio Orokorreko ikasleentzat: korporazio-saretik kanpodo posta-zerbitzarietatik eta zerbitzarietara mezuak bidaltzeko eta jasotzeko aukera ematen duen posta elektronikoko kontua izatea. Ez dute balioko mezuak korporazio-sarearen barruan bidali eta jasotzeko aukera besterik ematen ez dutenak

ESKAKIZUN TEKNIKOAK
SOFTWAREA:

- Windows XP edo berriagoa
- Nabigatzaileak: Internet Explorer 8, Mozilla Firefox 14.0.1 edo berriagoa eta Chrome eguneratua
- Pantailaren bereizmena: 1024 x 768 (gomendatua)
- Adobe Flash Player 10 edo berriagoa
- Acrobat reader 8 edo berriagoa (gomendatua)
- Internetarako konexioa eta Youtube zerbitzuko atzipena zabalik

HARDWAREA:

- PC Pentium III edo berriagoa
- Soinu-txartela
- Entzungailuak edo bozgorailu independenteak

TUTORETZA
Tutorearen egitekoak:

- Ikasleei plataforman ongi-etorria emateko mezu bat bidaltzea.
- Kontsultei erantzutea:
 - ikastaroaren edukiari buruzkoak, plataformako foroaren bidez
 - 24 orduko epean erantzutea
- Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.

HILA	HASIERA	AMAIERA	ADMINISTRAZIO OROKORRA		BESTE ADMINISTRAZIOAK	BAJAK (ez da matrikula kobratuko)
			ESKATZEKO AZKEN EGUNA	OE	ESKATZEKO AZKEN EGUNA	
OTSAILA	Otsailak 1	Otsailak 16	Urtarrilak 13	Urtarrilak 16tik 19ra	Urtarrilak 19	Urtarrilaren 31a arte

ZER LORTU NAHI DUGUN

HELBURU OROKORRAK
Jabetza intelektualaren araudi-juridikoaren ideia nagusiak ulertzeko gaiak ikasiko ditugu, software librearen ingurukoak, creative commons lizentzien ingurukoak eta baita iturburu irekien ingurukoak ere. Horrela, jakingo dugu, alde batetik, zein kasutan erabili, eta bestetik, zer ordorio izan ditzakeen bere erabilerak.

GAITASUNAK
Ikaslea gai izango da prestakuntza-ekintza amaitzean:

- Jabetza intelektualaren oinarrizko kontzeptuak ezagutzeko, araudia, bereziki
- Obren autoretza ezagutzeko eta detektatzeko
- Egoera bakoitzari dagokien eskubide mota ezartzeko
- Informazio erabilgarria eta berrerabilgarria desberdintzeko
- EAEko berezitasunak ezagutzeko

SOFTWARE LIBRE Y FUENTES ABIERTAS

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

Autoprestakuntzako online ekintza honek bi euskarri ditu: plataforma birtuala eta tutoretzak. Ikaskuntza sistema dinamikoan eta ikaslearen partaidetza aktiboan oinarritzen da, non ikasleak, tutore modura, irakasle baten laguntza jaso eta ikasleak banakako lana eta lankidetzatuztartzuz ikasiko duen. Ikastaroak 6 gai ditu, autoebaluaketarako testa eta jarduera desberdinak.

Ikasleak bere ikaskuntza hainbat tresnekin osatuko du: ikastaroko dokumentazioa eta irakurgaien loturak, foroetako partaidetza, ariketa eta galdetegiak egin, eta nola ez irakaslearekiko harremanan plataformaren bitartez.

PROGRAMA

1. Jabetza intelektualaren bilakaera historikoa
2. Jabetza intelektualaren araudia
 - a. Egungo araudiaren aipamena
 - b. Kontzeptu eta definizioak
 - c. Babes-erregimena
3. Software librea
 - a. Softwarearen kontzeptua
 - b. Softwarearen araubide-juridikoa
 - c. Software librea
 - d. Araubide-juridikoan txertatzea
4. Iturburu irekiak eta berrerabilpena
 - a. Iturburu irekiak
 - b. Berrerabilpena
5. Euskadiko araudia
6. Ondorioak

EBALUAZIOA

Ikastaroaren helburuak betetzen direla bermatzea izango da ebaluazioaren **helburua**. Ikastaroaren ebaluaketak **2 ariketa praktikoa** ditu: galdetegi bat eta kasu praktikoa. Jarduera batzuk on-line egin behar dira eta beste batzuk ordenagailuan gero plataforma birtualean atxikitzeko, tutoreak zuzendu eta lanaren feedback-a bidali dezan. Halaber, edukiak ikasteko eta jarduerak egiteko gomendatutako epeak markatuko ditu.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleen gogobetetze-inkesta eta Irakaslearen balorazio-inkesta. Posta elektronikoaren bidez, inkestaren lotura jasoko duzu, bete dezazun.

ZIURTAGIRIA

Aprobetxamendu-egiaztagiria lortzeko **bete beharreko baldintzak**:

- Ikastaroko 2 jarduerak gainditu: galdetegia (3/4) eta kasu praktikoa

Ziurtagiria digitala da, eta ikastaroa itxi ondoren eskuratu daiteke. Zure egiaztagiria lortzeko, Prestakuntza Zerbitzuko FAQ atalean kontsultatu: Administrazio Orokorra edo Toki Administrazioa arloetan.

PREZIOA

84€
AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena. (Abenduaren 30eko EHAA, 248. zk.)

LAGUNTZA

Laguntza teknikoa behar izanez gero:

- Deitu ELZko telefono zenbakira (945016) **440**
- Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 20:00etara

Aministrazio-gaiekin lotutako kontsultak egiteko: prestakuntza@ivap.eus